

2020

DK memoria

Jaialdia
POLTSIKO ANTZERKIA





2020ko kartela.



Matriuska. Ttak Teatroa eta Kamimaz Kolektiboa.

Urtarrilaren **29tik otsailaren 16ra bitarte** egin zen **Poltsiko Antzerkia, 29. edizioa** iritsi zen 2020an.

Programak **26 gune/agertoki** izan zituen hirian zehar, eta **34 emanaldi** eskaini zituen (bi-lau eguneko, Donostiako zenbait lekutan).

Jaialdi hau zubi ezin hobea da formatu txikiko antzerkira hurbiltzeko, eta arrakasta handia izaten du urtero ikus-entzuleen artean. Azken edizioan, hain zuzen, **3.629 ikus-entzuletik gora izan ziren**. Guztira, **16 konpainiak** eskaini zituzten umorezko lanak, drama eta musika; batzuk talde-lanak izan ziren, eta beste batzuk bakarkakoak.

Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere euskal sorkuntzak leku nabarmena hartu zuen: **16 emanaldi euskaraz** izan ziren. Generoari dagokionez, 17 ikuskizunetan emakumeak izan ziren protagonista, 2tan biak, eta 15etan gizonak.

Amaierako jaian, zeinean **280 lagun** bildu baitziren, topaketa gunea eskaini zen aktoreentzat eta ikus-entzuleentzat; oso esperientzia polita eta jostagarria. Poltsiko Antzerki jaialdiak beti izan du ikuslego fidela, eta urtero gehiago batzen doaz iada Donostiako kultur programazioko klasiko bat den ekitaldi honetara.

POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA

Poltsiko Antzerki jaialdian, eta oro har formatu txikiko antzerkian euskarazko eskaintza urria ikusita, euskarazko sorkuntzak bultzatu nahi ditugu deialdi honekin. Sorkuntzarako diru-laguntzaz gain, **ekoizpenean eta hedapenean laguntza** ere jasotzen dute proiektu sarituek, aukeratutako proiektuekin emanaldiak ere antolatuz. Beraz, deialdiaren laguntzak kultur katearen atal guztiak hartzen ditu barnean: sorkuntza, ekoizpena eta hedapena.



The Chanclettes.

10. edizioan jasotako proiektuen artean, lehen saria **Ttak Teatroa eta Kamimaz Kolektiboa** taldearen **Matriuska** antzezlanari eman zion epaimahaia. Bigarren saria, berriz, **Elur Sorkuntza Etxearen Esnatu Naiz** lanari egokitu zitzaion.